

## Alegrantziaren herritik

**J**uanjoren alegrantziaren aldeko manifestuak –eta despedida diskretuak– Alegrantziaren herrialdean harrapatu nau: Amerikako Estatu Batuetan.

Hemen oro da irribarre. Kanean ezezagunekin gurutzatu eta irribarre egitea betebeharrak konstituzionaltzat daukate, antza. Eskaleek ere (ugari), *spare change* eskatzera gerturatzen zaizkizunean, irribarre zabal batekin egiten dute, eta ezetz esaten diezunean, egun on bat opatuz agurtzen dira. Wal-Mart supermerkatuko sarreran –enpresa famatua, besteak beste, bere langile emakumezkoak diskriminatzeagatik– andre batek hartzen zaitu eta zer moduz zauden galdetzen dizu, ezer behar izanez gero langileak zuri laguntzeko daudela gogoraraziz. Aurkezten dizuten pertsona orok zu ezagutzeagatik pozez gainezka dagoela esaten dizu, eta zeuri buruz kontatzen diozun guztia *amazing* eta *awesome* eta *exciting* iruditzen zaio. Ez dakit zenbat aldiz esan didaten kaletik nire soinekoa izugarri ederra dela. Zine-aretoa festa hutsa da: tiroekin jauzi, gag tontoekin barrez lehertu, eszena erromantikoen “oooooh” hunkituak atera.

Kontrakoa gaizki ikusita dago.

Greyhound autobus geltokian mutiko bat kexaka zebilen –arrazoi osoz– bere ekipaje guztia –gitarra barne– galdu ziotelako. Geltokiko langileak esan zion bere jarrera aldatu ezean ezin ziola lagundu. Hau da, umore onez kexatu ezean.

Bati burura etortzen zaio *American Beauty* pelikularen eszena bat, Kevin Spaceyk antzezten duen pertsonaiak lana lortzen duenean janaria kotxean bertan sartzen dizuten “jatetxe” horietako batean. Bezeroei “smile, you’re at mr. Smileys!” esatera behartuta zegoen Spacey, eta eszena hori erabat sinesgarria egiten zait orain.

Zinismo europarra aireporturen batean



INIGO AZKONA

Katixa Agirre

Rodriguez

Olasagarre

galdu ez badiote, dena faltsueria dela erabakiko du kontinente zaharreko bidaiariak. Edo kaleko irribarreak eta soinekoaren inguruko konplimentuak tik nerbiosoak baino ez direla. Ted Hughesek Sylvia Plathi “your exaggerated American grin” aurpegiatu zion bezala. Baina egunek aurrera egiten dute, irribarreak beren horretan

mantentzen dira, igogailuan jendeak txisteak egiten ditu eguraldiaz hitz egin edo isilik geratu beharrean, eta azkenean konturatzen zara beste zerbaite dagoela, dena ez dela zurikeria. Ezin dela izan. Edo agian, garai batean kortesiazko formula hutsa izan zena gaur betebeharrak bihurtu dela, edo are kode genetikoan grabatuta gelditu zaiela.

Ez dakit argitu beharra dagoen orokortzen ari naizela. Eta hala ere inpresioa daukat pozik bizi direla estatubatuarrek Estatu Batuetan. Baita eskaleek ere. Pentsatuko dute: izorratuta gaude, bai, baina okerragoa litzateke eskale izatea munduko beste edozein herrialdetan. Eta Wal-Marteko andre langilea antzeko zerbaitekin animatuko da goizero.

Eta batek pentsatu dezake hobe luketela eskaleek, langile esplotatuek eta hainbat eta hainbat pertsona izorratuek errebelatuko balira. Horregatik egiten zaigu susmagarri hainbeste irri eta hainbeste poz.

Gurean –Europar esan dezaket, baina esan dezadan Euskal Herrian– dena baita etsipena, ezkortasuna eta mesfidantza. Pipertuta ibiltzeak plus bat ematen digu. Zerbaite ikasi beharko genuke estatubatuarrengandik. Azken finean, kaletik ezezagunei irribarrerik ez diegu zuzentzen, baina errebelatu ere, ez gara errebelatzen.

Irribarre batekin, irribarre amerikar esajeratu batekin nuke agurtu gaurkoan. Hurrengora arte, Juanjo. Hurrengora arte, Juanjo. Irailera arte, Eider eta gainontzekoak. Eta gora bihotzak! ■

Irribarre batekin, irribarre amerikar esajeratu batekin  
nahiko nuke agurtu gaurkoan. Hurrengora arte, Juanjo.  
Irailera arte, Eider eta gainontzekoak. Eta gora bihotzak!